

“Birziklatzea ez da negozio bat, gizartearen beharrizan bat da”

Nieves Rey

Komunikazio Korporatiboko eta Marketineko zuzendaria Ecoembes erakundearen

Hondakin bakoitza dagokion edukiontzian utzi ondoren, birziklatzeko prozesuak jarraitu egiten du bere zikloan, eta ehunka instalaziok eta milaka profesionalak esku hartzen dute. Edukiontzi horiko eta urdineko hondakinak, adibidez, Ecoembes-ek kudeatzen ditu; irabazteko asmorik gabeko erakundea da, eta Nieves Rey du Komunikazio Korporatiboko eta Marketineko zuzendaria. Hark nabarmentzen duenez, arlo horrek oraindik ez du goia jo lanpostuak sortzeari eta berrikuntzari dagokionez, eta egiten den lana herritarren eta ingurumenaren mesedetan izaten da.

Zer gertatzen da hondakinekin edukiontzian utzi ondoren? Edukiontzi horikoak gure udaleko kamioiak biltzen ditu eta Espainia guztian dauden 94 plantetako batera eramaten ditu. Edukiontzi urdinekoak paper lantegi batera joaten dira, eta han probetxua ateratzen diete (Espainian egunero saltzen den egunkari paperaren %80 paper birziklatu horretatik dator); beira, berriz, beira lantegietara joaten da, non ontzi berriak egiten dituzten. Azken bi kasu horietan, hondakinak birziklatzailearengana joaten dira zuzenean. Ez dute behar edukiontzi horiek behar duten tarteko pausoa (tratamendu plantak) bildutako ontzietatik izaten dituzten hiru material motak bereizteko: plastikoa, metala (aluminioa eta altzairua) eta brikak.

Zer egiten da tarteko pauso horretan? Tratamendu plantetan bereizi egiten dira materialak eta ondoren bakoitza bere birziklatzaileari eramaten zaio (250 baino gehiago daude homologatuta), berriz lehengai bihurtzen eta berriz ere birziklatzearen gurrupila has dadin. Horregatik, ez dut atsegin zaborra dela esatea, hondakinak baizik, baliabide gisa hartu eta eraldatu egiten direnak lehen ziren hori edo are zerbait hobea sortzeko. Orain Europatik entzuten den ideia handiak, ekonomia zirkularrak, enpre-

sei eta gobernuari esaten digu aurretik zehazki hondakinak ez direla lurperatu behar.

Nola funtzionatzen dute bereizteko planta horiek? Gela desordenatu bat hartu eta paketeetan ordenatzea bezala da. Planta horietan jende asko arduratzen da birziklatzaileak behar bezala antolatuta jaso dituzan materialak. Langileak aritzen dira, teknikariak, kalitate arduradunak, *triaderoak* edo materialak bereizteko ardura dutenak, eta abar. Materialak aztertu egiten dira, kalteren bat edo lohasunaren bat duten ikusteko, garbitu egiten dira eta urtu, berriz erabil daitezten. Planta bazuatan eskuz egiten dute eta, modernizatu ahala, modu automatikoan.

Zenbat pertsona lan egiten dute birziklatzearen arloan? Edukiontzi horiaren eta urdinaren inguruan kontatu ditugunak bakarrik 9.600 lanpostu zuzen dira eta zeharkakoak 42.000 inguru. Gaur egun oso industria ahaltsua eta profesionalizatu da, lehen ez zeuden lanpostuak sortu dituenak. Lehen informaltzat hartzen zuten sektore hau, baina orain ez da hala. Orain jendea berrikuntzan ari da lanean material biodegradagarriak egiteko, sentsoreak sortzeko edukiontziak beteta dauden jakin eta bilketa eraginkorragoak egiteko... Enplegu berdea sortzeko iturri bat da, hazten ari den iturria.

Edukiontzietan biltzen den guztia-ri ateratzen al zaio probetxua? Bai, bestela ez lirateke hainbeste kamioi ibiliko kaleetan, ez lirateke hainbeste planta egongo bereizteko eta birziklatzeko, hainbeste lanpostu eta azpiegitura. Prozesuak optimizatu egiten dira, adibidez PET plastikoa birziklatzen duen planta bat gai izan dadin material horrekin eginak ez dauden tapoiak berreskuratzeko, gero beste erabilera bat eman diezaieten.

Ohikoa al da edukiontzietako hondakinak biltzean akatsa egitea, adibidez hondakin batzuk eta bes-

teak nahastea kamioian. Ez. Baliteke inoiz gertatu izatea, kamioi asko daude eta milioi erdi edukiontzi. Udalen batek edo kontrataren batek uneren batean ez badu ongi egiten, guztion artean salatu behar dugu. Birziklatu nahi ez duenak darabilen ohiko aitzakia da bere kontzientzia txarra ezkutatzeke, baina ez du zentzurik, dena ongi antolatuta dagoelako.

Zer egin behar dugu zerbaitetan ez direla ongi ari ikusiz gero? Edozein egoera, adibidez edukiontziak gainezka egotea edo behar adina ez izatea, kamioiak ez pasatzea behar adinako maiztasunarekin... gure udalari jakinarazi behar diogu, normalean hura arduratzen da-eta biltzeaz. Hori egiteko, ohiko bideak erabil daitezke edo sare sozialak. Hiri bat garbi ikustek parte hartzeko gogoia sentiarazten dio jendeari.

Birziklatzearekin kritiko direnek esaten dute hau negozio bat dela, herritarrek lana egin eta etekina enpresa batzuek ateratzen dutela. Birziklatzeak guztioi egiten digu mesede, baita ingurumenari ere, eta hiri bat zaintzeko egin daitezkeen gauzarik onenetakoa da. Ez da negozio bat, gizarteak duen beharrizan bat da, eta material berriak lortzeko balio du, energia aurrezteko, ura, lanpostuak sortzeko, eta abar. Guztiok nahi dugu hiri garbi bat eta birziklatzeak lagundu egiten du horretan. Herritarrek di- ra onuradun nagusiak.

Zer egin dezakegu herritarrek hobeto birziklatzeko? Horretan sinetsi eta ohitura automatiko bihurtu, autoan segurtasun uhala jartzen dugunean bezala. Eta, guztiok eginda, birziklatzen ez duena lotsarazi, herritar onek egiten duten keinu gisa har dadila. Kontzientzia hori gero eta handiagoa da, ingurumenak sekula ez du axola izan orain adina. Oinarri hori finkatu egin behar da eta bultzaka jarraitu.

➔ www.consumer.es

